Elorrioko udala

Klausula Tekniko Partikularren Agiria: Elorrio Kiroldegiko eta Elizalde Igerilekuetako kirol zerbitzuak, sorospena, koordinazioa, bezeroaren arreta eta mantentze konduktiboa prestazioaren lizitazioa eta esleipena arautzekoa

EDUKIAK

1. KLAUSULA. Kontratuaren xedea 3
2. KLAUSULA. Kontratuaren xede diren ekipamenduen deskribapena 3
3. KLASUSULA. Kontratuaren eremuen definizioa 4
4. KLAUSULA. Kontratuaren hasiera eta iraupena 5
5. KLAUSULA. Emon beharreko zerbitzuak eta kontratuaren baldintza teknikoak 6
6. KLAUSULA. Zerbitzuaren egutegia eta planifikazioa 19
7. KLAUSULA. Zerbitzua handiagotzea, murriztea eta aldaketak 20
8. KLAUSULA. Zerbitzuen Jarraipen- eta ikuskaritza-Batzordea 20
9. KLAUSULA. Hizkuntza irizpideak 22
10. KLAUSULA. Aseguru-polizak 23
11. KLAUSULA. Material teknikoa 24
12. KLAUSULA. Kalitate-mailak eta jarduera talde ezberdinetarako ratioak 24
13. KLAUSULA. Kontratu-aldian esleipendunak aurkeztu beharko duen oinarrizko dokumentazioa 25
14. KLAUSULA. Konfidentzialtasuna 25
1. ERANSKINA. Kontratuaren xede diren kirol instalazioak. Deskribapen orokorra eta planoa 26
2. ERANSKINA. Jarduera fisikoen eta uretakoen programa 27
3. ERANSKINA. Urterako aurreikusitako batez besteko orduak, eta zerbitzuen tipologia 28
4. ERANSKINA. Subrogatu behar diren langileen zerrenda 29
5. ERANSKINA. Kudeaketa-memoriak 30

1. KLAUSULA. Kontratuaren xedea

Agiri honen xedea da Elorrio Kiroldegiko eta Elizalde Igerilekuetako kirol zerbitzuak, sorospena, koordinazioa, bezeroaren arreta eta mantentze konduktiboaren prestazioaren kontratua arautuko duten baldintza tekniko partikularrak zehaztea. Kontuan hartu behar da, bai Elorrio Kiroldegia, baita Elizalde Igerilekuak, eta dituzten espazio guztiak kudeaketa-unitate bera osatzen dutela.

Halaber, kontratuaren xede ere bada, Elorrio Kiroldegiaren eta Elizalde Igerilekuen kudeaketaren etengabeko hobekuntzan aholkularitza, sistema hauen bidez: talde-lana, hobekuntza-taldeak eta kalitate-programak.

2. KLAUSULA. Kontratuaren xede diren ekipamenduen deskribapena

Alde batetik, Elorrio Kiroldegia dago, Klaudio Gallastegi kalean (zk.gb.) dagoena. Kiroldegi honetan estalitako igerileku bat dago, urte osoan erabiltzen dena igeriketa eta uretako beste jarduera batzuk egiteko, baita aldagelak eta honako kirol espazio hauek: fitness areto bat, eta beste hiru areto gidatutako jardueretarako, bestalde kirol anitzeko pista ere du, frontoi bat eta squash pista bi, uretako jarduera osatzen dutenak “lehorreko” jarduerekin.

Kirol anitzeko pistaren, pelotalekuaren eta squash pista bien erabileran, lehentasuna udalerriko kirol taldeek eta eskoletako taldeek dute, Kirol eta Jarduera Fisiko Arloak dioenari jarraituz. Baita, Elorrioko Udalak herritar orori aukera emoten dio aipatutako espazioak alokatzeko.

Beste alde batetik, abuztuan zehar Elorrio Kiroldegia bi astebetez itxi egingo da konponketa teknikoak egiteko, eta premia dagoen kasuan astebete gehiago luzatu ahal izango da itxi-aldia.

Elorrio Kiroldegia	
Kirol espazioak	1 Fitness aretoa eta jarduera kardiobaskularrak 3 areto gidatutako jarduerak egiteko 1 igerileku 25 m x 8,5 = 212,5 m^2 1 kirol anitzeko pista: 1050 m^2 1 pilotaleku: 468 m^2 2 squash pista
Espazio osagarriak	1 komun mutilentzat, 1 komun neskentzat igerilekuan 1 aldagela mutilentzat, eta 1 aldagelan neskentzat igerilekuan. 1 aldagela egokitua igerilekuan. 1 komun egokitua igerilekuan 1 komun neskentzat. 1 komun mutilentzat. 2 aldagela mutilentzat. 2 aldagela neskentzat.

	1 harmaila pilotalekuan. 1 harmaila kiroldegian 1 bulego eta bilera-gela pilotalekurako eta aretoko futbolerako.
Jarduerak	Fitness librea, gidatutako jarduerak aretoan eta uretakoak, igeriketa librea, olgetarako igeriketa, igeriketa-ikastaroak, aretoko futbola, saski-baloia, frontoia, squash.
Ordutegia	Astelehenetik barikura: 7.00 - 22.00. Uztaila eta abuztua: 08.00 -20.00. Zapatuak: 09.00-20.00. Domekak eta jaiegunak: 09.00-14.00

Beste alde batetik, Elizalde Igerilekuak ditugu, San Bizente kalean 10ean daudenak. Hemen, olgetarako hiru igerileku ezberdin daude.

Elizalde Igerilekuak	
Jolaserako espazioak	1 igerileku 0,2 m-ko sakona, eta 1 txirrista. 1 igerileku 1,5 m-ko sakona, eta txirristak. 1 igerileku desnibelarekin 2 m-tik 1,5 m-ra doana.
Espazio osagarriak	1 hondartza 1 gune berdea. 1 taberna. 1 aldagela neskentzat. 1 aldagela mutilentzat. Komunak.
Jarduerak	Jolas-igeriketa.
Ordutegia	Ekainaren bigarren hamabostalditik iraileko lehenengora. Astelehenetik domekara: 11.00 – 20.30.

3. KLAUSULA. Kontratuaren eremuen definizioa

Zerbitzuak enpresa esleipendunak emongo ditu Elorrioko Udalaren Kirola eta Jarduera Fisikoa Infomazio Batzorderako izendatutako zinegotziaren eta beraiek izendatutako pertsonen gainbegiradapean.

Kontratuaren esleipendunak programaren aholkularitzan eta hobekuntzan lagunduko du uretako jarduerei, jarduera fisikoei, osasunekoei eta aisialdikoei buruz ari garela. Eta horretarako, herritarren adin, sexu eta baldintza guztietarako izango diren mekanismoak sortuko ditu, ulertuta praktika hauen helburua ongizatea eta kohesio soziala direla.

Elorrioko Udalak zerbitzuak prestatu ahal izateko esleipendunaren eskura jartzen ditu kontratua gauzatzeko behar diren jabari publikoko ondasunak (higiezina, instalazioak,

ekipamendua, materialak eta pistak) kontratu honetako xede den kirol zerbitzu publikoa emon dezan.

Beraz, enpresa esleipendunak Elorrio Kiroldegiaren eta Elizalde Igerilekuaren zerbitzuen funtzionamendu zuzenaren gaineko erantzukizuna bere gain hartzen du. Sarrera gisa, kontratu honen xede diren arlo ezberdinetan emon beharko diren zerbitzuak honako hauek dira:

Elorrio Kiroldegia

1.- Koordinazio zerbitzua emotea.

2.- Kirol zerbitzuak emotea.

3.- Salbamendu eta sorospen zerbitzua emotea.

4.- Harrera-, administrazio- eta bezeroarentzat arreta-zerbitzuak emotea.

5.- Mantentze konduktibo zerbitzua emotea.

Elizalde Igerilekuak

6.- Salbamendu eta sorospen zerbitzua emotea.

7- Harrera-zerbitzuak emotea.

8.- Mantentze konduktibo eta garbiketa zerbitzuak emotea.

Kontratu hau ezin da lotetan zatitu, espediente honetan dagoen premia-txostenean agertzen diren arrazoiengatik.

4. KLAUSULA. Kontratuaren hasiera eta iraupena

Enpresa esleipendunak zerbitzua emoteagatik erantzukizunak bere gain hartuko ditu kontratua sinatzen denean zehaztuko den egunean. Zerbitzuak emoteagatik erantzukizunak hartzen diren unean, ekipamenduaren jasotze-akta bat formalizatuko da, eta kontratua gauzatzeko bere eskura jarritako altzarien, makinen eta inbentariagarria den materialaren zerrenda bat egingo da.

Kontratua sinatzen denetik hasiko da, eta honetan finkatuko da erabiltzaileei eta abonamendua dutenei benetan zerbitzuak emoten noiz hasiko diren. Zerbitzuaren prestazioa, gehienez hiru urterako izango da kontratua sinatzen den egunetik hasita. Kontratua luzatu ahal izango da urtean, urtean, gehienez bi urtez. Prestazioaren gehienezko epearen amaieran, enpresa esleipendunak zerbitzua emoten jarraitu beharko du, enpresa barria hasi arte.

5. KLAUSULA. Emon beharreko zerbitzuak eta kontratuaren baldintza teknikoak

Zerbitzu hauek eskainiko dira Elorrioko Udalaren gainbegiradarekin, Elorrioko Udalak eta Kirola eta Jarduera Fisikoa arloak, horretarako, izendatuko dituen pertsonen bidez. Enpresa esleipendunak erabileraren planifikazioan lagunduko du eta aipatutako zerbitzuak egiterakoan, helburua izanik kalitatezko zerbitzua eskaintzea etengabeko hobakuntzan eta talde-lanean, instalazioaren erabiltzaileak eta abonamendua dutenen parte-hartzea sartuz.

Jarduketa-lerro honetan, enpresa esleipendunak garatu behar dituen ezaugarriak, errekerimenduak eta funtzionak honako hauek izango dira:

Elorrio Kiroldegia

5.1.- Koordinazio-zerbitzua emotea.

- Koordinazioaren arduraduna: enpresa esleipendunak koordinatzaile bat jarri beharko du. Hau, Jarduera Fisikoaren Zientziatan eta Kirolean tituluduna izango da, eta modu proaktiboan honako zeregin hauek egin beharko ditu:

  - Emondako zerbitzuen kudeaketa koordinatuko du Elorrioko Udalarekin batera, etengabeko hobakuntza lerroan eta talde-lanean, erabiltzaileak eta abonamendua dutenen etengabeko parte-hartzea barne.
  - Elorrioko kiroldegiaren egitura operatiboa osatzen duten zerbitzu ezberdinetako zereginak planifikatu, ezarri eta zuzendu beharko ditu.
  - Giza baliabideak kudeatuko ditu: altak, bajak, zerbitzuetan eragina sortzen duten aldaketak, Kirol eta Jarduera Fisiko Arloari aurreikusitako estalduretan egingo diren aldaken gaineko informazioa emotea.
  - Elorrio Kiroldegia erabiltzen duten ikastetxe eta erakundeekin harreman lotura arinak ezarriko ditu.
  - Zerbitzu ezberdinen eta kirol instalazioen erabilera-arauak betetzen direla zainduko ditu (Elorrioko Udal kiroldegiaren funtzionamendua, erabilera eta gozamena arautuko duen ordenantza).
  - Emoten diren zerbitzuen jarraipen ekonomikoa egingo du.
  - Elorrioko Udalak egindako komunikazio- eta komertzializazio-kanpainetan euskarri izango da.
  - Baldintza-agiri honetan jasotako zerbitzuen kalitatearen eta konpromisoen jarraipena egingo du.
  - Funtzionamendu jarduketa-protokolo ezberdinetan jarraipena egingo du: intzidentziak, sarrera barriak, istripuak, ordezkapenak, eta abar.
  - Elorrio Kiroldegia garbitzen duen enpresa arduradunaren eguneko zereginen jarraipena egingo du.
  - Instalazioaren funtzionamendu orokorraren ebaluazio jarraia egingo du.

- Elorrioko Udalarekin bilerak egingo ditu aldizka, zerbitzuaren funtzionamendua baloratzeko eta kalitatea hobetzeko.
- Elorrioko Udalak eskatutako aldizkako txostenak egingo ditu, entrega zuzena eginez eta baldintza-agiri honetan zehazten den dokumentazioaren kontrolarekin.
- Programatuko du beharginekin egin beharko den urteko trebakuntza, sarrera barrien protokoloa barne.
- Elorrioko Udalak eskatzen dituen gai guztietan laguntza emongo du, baita zerbitzuaren funtzionamendu onerako premiatik eratorritako zereginetan.

Koordinatzaileak modu presentzialean kudeatuko du instalazioa eta arduraduna izateaz gain Elorrioko Udalaren aurrean enpresa esleipenduraren solaskidea izango da. Pertsona honek lanaldi erdiko jarduna egingo du modu presentzialean, eta gutxienez, astean bi arratsalde egin beharko ditu, modu honetara instalazioaren ordutegi ezberdinetan estaldura bermatzeko. Modu berean, koordinatzailea maiztasun batekin bilduko da Kirola eta Jarduera Fisikoa arloarekin, eta eskatzen zaion guztietan.

- Koordinazio-zerbitzua: kontratu honen xede diren zerbitzu ezberdinak garatzeko, enpresa esleipendunak beharrezkoa den pertsonala esleituko du, teknikoki kalifikatua egongo dena, eta eskatutako tipologiari egokitutako profila eta titulazioa beharko duena. Behargin guztiek: koordintzaileak, monitoreek, sorosleek, harrerako eta jendaurrekoek, baita mantentze-beharretako eta garbiketakoek portaera-arauak eta ezarritako prozedura-eskuliburuak ezagutu eta errespetatu beharko dituzte.

Enpresa esleipendunak ahaleginak egingo ditu pertsonala ahalik eta egonkorrena izan dadin. Aldentzeak edo bajak sortzen badira, ordezkapenak eta txandak egin beharko dira zerbitzuari ahalik eta kalte txikiena sortuz, eta bereziki arreta berezia jarriz beharginen eta erabiltzaileen artean egin behar diren aurkezpenetan, hasierako gidaritza, froga-aldia, eta abar.

Ordezkapenen kudeaketarekin lotuta, hau pertsonalik gabe inoiz ere ez geratu ezin den zerbitzu bat izanik, zerbitzuaren estaldura bermatuko duen ordezkapenak egiteko prozesu bat idaztea eskatzen du. Enpresa esleipendunak zerbitzua emoten den ordutegi osoan etenik gabeko zerbitzu bat bermatzeko mekanismoak garatu eta ezarri beharko ditu, egoeraren barri emonaz Udalak erabakitzen duen bidearen bidez. Bestalde, enpresa esleipendunak ordezkapenak egiteko urtean kontratatu duen langilegoaren % 40a gutxienez, emakumezkoa izan dela justifikatu beharko du, kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako baldintzak –funtzionalak eta materialak- betetzen badira.

Enpresa esleipendunak, etengabeko birziklatzea egiten dela bermatzen duen prestakuntza- eta hobekuntza tekniko- plan bat aurkeztuko du, teknika eta programa barriak txertatu ahal izateko Elorrio Kiroldegiko erabiltzaileen onurarako. Plan honen planifikazioa eta egikaritzea enpresa esleipendunaren kontura izango da, Elorrioko Udalaren onespen eta gainbegiradarekin.

Beste alde batetik, enpresa esleipendunaren ordezkariak Elorrioko Udalak deitzen dituen bilera guztietara joan beharko du, behar-ordutegitik kanpora badira ere, eta kasua bada, kontratu honen xede diren zerbitzuak prestatzeko koordinatzailearekin, kalitatearen hobekuntza, funtzionamendu ona eta zerbitzuaren koordinazioa bermatzeko, baita irizpideak eta hobekuntza jarraia bateratzeko, hala nola parte-hartzea eta talde lana.

Elorrioko Udalak, eskura jarriko ditu zerbitzuaren prestazioa behar moduan garatu ahal izateko elementuak, adibidez, abonamendua duten pertsonen kudeaketa egiteko softwarea eta sarreren kontrola. Honek, lizentziak, mantentze-zereginak, eguneratzeak, eta softwarearen funtzionamendurako behar den hardwarea, hau da, ordenagailuak, inprimagailuak, txandak eta sarreren kontrolerako ateak, baita makinaria txikia eta behar den bulegoko materiala.

Egun, Elorrio Kiroldegiak GPA Sport kudeaketa-softwarea dauko. Kontratuaren xede diren urte guztietan aipatutako software hau erabiltzeko gomendioa egiten zaio enpresa esleipendunari, baina honek, kudeaketa software barri bat proposatu ahal izango dio Elorrioko Udalari. Enpresa esleipendunak GPA Sport softwarea erabiltzen badu, aurreko enpresa esleipendunak funtzionamenduaren eta prozesuen transferentzia egin beharko du kudeaketa softwarerantz, bai enpresa barrian, baita Elorrioko Udalean.

Gainera, enpresa esleipendunak dagoen pertsonalarentzako birziklatze-prestakuntza egingo du, eta pertsonal barriarentzat eta ordezkapenentzat hasierako prestakuntza bat, GPA Sport softwarearekin edo beste software ezberdin batekin.

Enpresa esleipendunak kudeaketa-memoria bat egingo du eta hilero eta urtero Elorrioko Udalari bialduko dio formatu digitalean. Kudeaketa-datu hauek barne izaera izango dute, eta hileko kudeaketa hilabeteka islatuko dute, zerbitzuaren prestazioaren funtzionamendu arruntaren *feedback* hobea izateko, eta kudeaketaren proiekzioa egin ahal izateko. 6 eranskinean, memorietan aurkeztu behar den kudeaketa-datuak agertzen dira.

Gainera, enpresa esleipendunak kontratuari atxikitako pertsonalaren gaineko berdintasun-plan eraginkorra aplikatuko du. Enpresak jarduketa-protokolo bat edukiko du erabiltzaileen, abonatuen baita enpresako pertsonalak jazarpena, abusua eta sexu erasoak jasanez gero, aurre egiteko. Protokoloak, gutxienez, prebentzio neurriak zehaztuko ditu, eta kasuak hainbat lasterren konpontzeko eta eraginkortasun haundienarekin, baita biktimak babesteko, eta protokoloaren gaineko informazioa zabaltzeko bideak.

Zentzu berean, enpresa esleipendunak bermatuko du Elorrio Kiroldegiko eta Elizalde Igerilekuetako guneak seguruak izango direla erabiltzaile guztientzat, bere duintasunari eta integritate fisikoari eta moralari buruz ari garela, beraz, aldizka, hau da, hiruhilabetero gutxienik errebisioak egin beharko dira ekipamenduaren espazio guztietan, egiaztatzeko nahiko argiteri dagoela, ezkutuan kamerarik edo grabaziorako eta ikusi ahal izateko beste edozein elementu ez dagoela egiaztatzeko. Errebisio hauek Elorrioko Udalari emongo zaizkio.

5.2.- Kirol zerbitzuak emotea.

Enpresa esleipendunak kirol zerbitzu ezberdinen erabilera-planari egokitutako programazio bat egikaritu beharko du, kirol programa ezberdinen programazioa, egikaritzea, koordinazioa eta kontrola eginez. Kirol zerbitzu hauek egiterakoan, enpresa esleipendunak genero ikuspegia aplikatu beharko du.

Kirol zerbitzu ezberdinen prestaziorako den material barria erosi behar denean hondatuta dagoelako edo erabilera egokia ezinezkoa delako, material hau Elorrioko Udalaren kontura izango da.

Beste alde batetik, Elorrio Kiroldegian emoten diren kirol zerbitzu guztietan, pertsonalak asistentziaren kontrol bat eroango du zerbitzua modu etengabean hobetzeko helburuarekin. Enpresa esleipendunak, hilero, Kirol eta Jarduera Fisikoa Sailean txosten bat aurkeztuko du batez besteko bertaratzeekin fitness aretoan, lurrean eta uretan egiten diren gidatutako jardueretan, igeriketa ikastaroetan, taldeei zuzendutako kirol programetan eta jarduera osagarrietan.

Horretarako, aurreikusi den programen eskaintza honako hau da:

- Aholkularitza eta arreta zerbitzua fitness aretoan: zerbitzu hau 8 orduz emongo da urte osoan zehar astelehenetik barikura, zehaztuko den ordutegian. Zapatu, domeka eta jaiegunetan ez da aholkularitza eta arreta zerbitzurik egongo fitness aretoan. Fitness aretoko aholkularitza eta arreta zerbitzua emoteko pertsonalak honako hauek egin beharko ditu:

    - Fitness aretoan kirola praktikatzeko makineria eta materialen erabileran gidatu, zuzendu eta kontrolatu.
    - Entrenamendu-planak diseinatu, egin, kontrolatu eta jarraipena egin.
    - Astean txosten bat egin burututako zereginen jarraipenarekin: entrenamendu-planak, jarduerak eta abar.
    - Kirol ekipamenduaren oinarrizko mantentze-zereginak egin.
    - Aretoko inbentarioaren kontrola eta kudeaketa.
    - Aretoan sortzen diren intzidentziak kontrolatu eta kudeatu, eta eremu honetako erabiltzaileei arreta emon.
    - Kontrolatu erabiltzaileek betetzen dutela Elorrioko Udal Kiroldegiaren funtzionamendua, erabilera eta gozamena arautzen Ordenantza.
    - Koordinatzaileak edota Elorrioko Udalak eskatzen dituzten beste zeregin batzuk.

Beste alde batetik, fitness aretoan aholkularitza eta arreta zerbitzuaren arduradunak iraunpen laburreko taldeko jarduerak emon beharko ditu areto honetan, Kirol eta Jarduera Fisiko Sailak horrela erabakitzen badu.

- Lurreko eta uretako zuzendutako jarduera-zerbitzua: enpresa esleipendunak lurreko eta uretako zuzendutako jardueren kirol praktikaren irakaskuntzaren gidaritza, kontrola

eta zuzendaritza bermatzeko beharrezkoa den pertsonala jarri beharko du. 2 eranskinean kontsultatu ahal izango da zerbitzu honetan sartu diren jardueren zerrenda, eta jarraian, jardueretako pertsonalaren funtzio nagusienak zerrendatzen dira:

- Gidatu, zuzendu eta kontrolatu lurreko eta uretako zuzendutako jardueren praktikaren irakaskuntzan, hau da, mantenimendu fisikoa, aerobikoa, tonifikazioa, gimnastika arina, indoor txirrindularitza, aquagym, aqua-aerobic eta gaurkotasuna duten beste programa batzuk.
- Kirol programazioa egokia den metodologiarekin egikaritu eta zerbitzuetako bakoitzaren programazioan finkatutako zuzentarauen pean.
- Enpresa esleipenduak eta Elorrioko Udalak proposatutako urteko prestakuntza jarraiak egin, zerbitzuen hobekuntzarako.
- Bertaratze-erabilerak apuntatzea.
- Erabiltzailerik ez dagoelako kirol eskaintzarik garatzen ez den kasuan, beste zeregin batzuk egin beharko ditu instalazioko koordinatzaileak emongo dizkion jarraibideei jarraituta.
- Koordinatzaileak edota Elorrioko Udalak eskatzen dituzten beste zeregin batzuk.

Zuzendaritzapeko jarduera fisikoak uztailean, abuztuan eta irailean aldaketak izaten dituzte, baita Gabonetan eta Aste Santuan, beraz, bi egutegi egin beharko dira, bat ikasturterako, eta beste bat aipatutako sasoietarako. Egutegiak enpresa esleipendunarekin eta Kirol eta Jarduera Fisiko Sailarekin batera egingo dira.

Enpresa esleipendunak ordaindu behar izango ditu jardueretan, behar izanez gero, musika jarri ahal izateko ordaindu beharreko lizentziak, baimenak edo beste batzuk, baita lizentzia bereziak behar dituzten beste batzuk.

- Igeriketa ikastaroak: enpresa esleipendunak igeriketa ikastaroetako gidaritza, kontrol eta zuzendaritza zereginak bermatzeko behar den pertsonala ipini beharko du. 2 eranskinean kontsultatu ahal izango da igeriketa-ikastaroen zerrenda, eta jarraian, igeriketa-ikastaroak irakasten dutenentzat funtzio nagusienak zerrendatzen dira:

- Gidatu, zuzendu eta kontrolatu igeriketaren irakaskuntza honako hauen bidez: eskolako igeriketa-ikastaroak, eskola orduetatik kanpoko ikastaroak, nagusientzako eta beste talde batzuentzako ikastaroak: umetxoentzat, adinekoentzat eta dibertsitate funtzionala dutenentzat.
- Kirol programazioa egokia den metodologiarekin egikaritu zerbitzuetako bakoitzaren programazioan finkatutako zuzentarauen pean.
- Enpresa esleipendunak eta Elorrioko Udalak proposatutako urteko prestakuntza jarraiak egin, zerbitzuen hobekuntzarako.
- Bertaratze-erabilerak apuntatu.
- Talde bakoitzarentzat ezarritako igerileku espazioen koadrantea jarraitu.

- Zenbait ikastaro edota zerbitzuetarako, sarreran eta urteeran aldagela eremuan adinez txikiak lagundu.
- Erabiltzailerik ez dagoelako kirol eskaintzarik garatzen ez den kasuan, beste zeregin batzuk egin instalazioko koordinatzaileak emondako jarraibideei jarraituta.
- Koordinatzaileak edota Elorrioko Udalak eskatzen dituzten beste zeregin batzuk.

Enpresa esleipendunak igeriketa ikastaroetako eskaintza guztian parte-hartzaileen ebaluazio txostenak egingo ditu, eta diplomak emon zehazten den eremuan. Aipatutako txosten hauek derrigorrean programa informatiko batekin kudeatuko dira, eta aurrez Kirola eta Jarduera Fisiko Sailak onetsita eta baimenduta egon beharko dute.

- Taldeei zuzendutako kirol programak: enpresa esleipendunak eskola adineko umeei eta adinekoei zuzenduta kirol programetako kirol praktikaren irakaskuntzan erabileraren gidaritza, kontrol eta zuzendaritza zereginak bermatzeko behar den pertsonala ipini beharko du. 2 eranskinean kontsultatu ahal izango da zerbitzu honetako kirol programen zerrenda, eta jarraian jardueretako pertsonalaren funtzio nagusienak zerrendatzen dira:

- Gidatu, zuzendu eta kontrolatu eskola kirola moduko programen irakaskuntzan, kirol jardunaldietan, campusetan, martxa nordikoan, gaurkotasuna duten beste programa batzuen artean.
- Kirol programazioa egokia den metodologiarekin egikaritu zerbitzuetako bakoitzaren programazioan finkatutako zuzentarauen pean.
- Enpresa esleipendunak eta Elorrioko Udalak proposatutako urteko prestakuntza jarraiak egin, zerbitzuen hobekuntzarako.
- Bertaratze-erabilerak apuntatu.
- Erabiltzailerik ez dagoelako kirol eskaintzarik garatzen ez den kasuan, beste zeregin batzuk egin beharko ditu instalazioko koordinatzaileak emondako jarraibideei jarraituta.
- Koordinatzaileak edota Elorrioko Udalak eskatzen dituzten beste zeregin batzuk.

- Beste zerbitzu osagarri batzuk: enpresa esleipendunak, gutxienez, 100 orduko ordu-poltsa bat edukiko du Elorrioko Udalarekin batera lankidetzan, noizbehinka, eta araututakotik kanpora egingo diren zerbitzuetarako, hau da, jarduera herrikoietarako, Ferixa Nausikoetarako, beste ospakizun batzuetarako eta abar. Zerbitzu osagarri hauek martxan jartzeak ez du derrigortzen Elorrio Kiroldegiko pertsonala subrogatzera.

Jarduera hauek Elorrio Kiroldegiaren eta Elizalde Igerilekuen istalazioetan egin ahal izango dira, edo Elorrioko eta inguruetako beste edozein lekutan. Datak koordinatu egingo dira enpresa esleipendunaren eta Kirola eta Jarduera Fisiko Saileko pertsonalarekin. Edozein kasutan, 15 eguneko aurrerapenarekin, Elorrioko Udalak zerbitzu osagarri hauek egitea eskatu ahal izango du.

5.3.- Salbamendu eta sorospen zerbitzua.

Enpresa esleipendunak, Elorrio Kiroldegiko instalazioak zabalik daudenean salbamendu eta sorospen zerbitzuan arduradun bat, gutxienez, egongo dela bermatuko du. Pertsona honek uretako salbamenduko prestakuntza arautua eduki beharko du, baita lehen sorospenetan, eta titulazioa indarrean beharko du.

Instalazioko igerilekuetako esparruak espazio guztian dauden ur putzuak eta hondartzak hartzen ditu. Helburua instalazioaren erabilera-arauak errespetaraztea izango da, eta erabiltzaileek egon daitezela une oro lagunduta istripuren bat suertatuz gero edo itoz gero, esku-hartze bizkorra eta eragingarria eginez.

Zerbitzuaren barne egongo da Elorrio Kiroldegiaren instalazioetan sor daitekeen edozein istripu artatzea, eta larrialdietako lehen aktuazioak egitea. Istripu larriak daudenerako, proposamenean zehaztuko den intzidentzietarako plana jarraitu beharko da. Plan honek berehala esku-hartzeko protokolo bat izango du barne, eta ondorioz enpresa esleipenduna arduratuko da DEA desfibriladoreen mantentze-zereginekin, baita oxigenoterapia ekipoekin (O2 botila, oxigenoterapia maskara, autoaireztapena). Ekipamendu hau Elorrioko Udalarena da eta beharrezkoa da zerbitzua emon ahal izateko funtzionamenduan egotea, eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari atxikitako Kanpo Desfibriladore Automatizatuen Euskal Erregistroan inskribatuta egotea. Halaber, aipatutako tresneria manipulatu behar duenak prestakuntza berezia gainditu duela segurtatuko da, indarrean dagoen legediaren arabera barriztatu beharko duena.

Enpresa esleipendunaren erantzukizuna da salbamendu eta sorozpidetza zerbitzuaren egikaritze egokia egiteko behar den materiala aldizka berrikustea, baita Kirol Sailari jakinaraztea materiala garaiz aldatzeko eta birjarri ahal izateko, hori oztopo izan ez dadin zerbitzua egikaritzean.

5.4.- Harrera-, administrazio- eta bezeroarentzat arreta-zerbitzuak emotea

Elorrio kiroldegiko harrera-, administrazio- eta bezeroarentzat arreta-zerbitzuaren gainean ardura duen pertsonalak instalazioa zabaltzeko proposatutako ordua baino 15 minutu lehenago zabaldu eta 15 minutu beranduago itxi beharko du. Gainera, behargin hauek, gutxienez, honako zeregin hauek bete beharko dituzte:

- Elorrio Kiroldegiaren eta eskaintzen dituen zerbitzuak sustatu, bezeroaren arreta egin eta informazioa emon.
- Barne promozioaren prozesu osoa formalizatu, inskripzioak eta erabiltzaileen mantentze-lanak eta bajak egin, baita sartu kudeaketa-programan administrazio datuak eta bankukoak eta abar.
- Itxaron-zerrendetako prozesuen jarraipena egin, talde aldaketak eta beste batzuk.
- Komunikazioan euskarri-lanak egin eta sare sozialak eta web-orria kudeatu.

- Abonamendua duten pertsonen kudeaketaren informatizatutako prozesuak bete, eta paperean dagoen dokumentazioaren artxiboa, baita datuen babeserako une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako protokolo guztien jarraipena egin.
- Kutxa kontrolatu eta itxi. Hau egunero entregatuko da Elorrioko Udalean, eta kobraketaren kudeaketaren jarraipena egingo da, baita itzulketen erreklamazioa eta ordaindu ez diren errezibuak kobratzeko kudeaketa.
- Jardueran edo zerbitzuen edo artikuluen salmentan diruzaintzan sortzen diren mugimendu guztiak banku helbideraketa bidez egingo dira, edo ordainketa birtual bidez edo txartelarekin, horretarako esleipendunak eskuzko ordainketen kudeaketa automatizaturako dispositibo bat instalatu beharko du, eskudirutan ordaintzeko, billeteteak eta txanponak balidatu eta emongo dituenak, baita itzulketak.
- Elorrio Kiroldegiaren zaintza orokorra egingo du, baita bitarteko informatiko bidez.
- Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak kudeatu, aurkeztu eta hurrengo 48-72 orduen barruan.
- Material txikiaren salmenta.
- Bezeroa hartu eta arreta emoteko diren beste funtzio batzuk, koordinatzaileak edota Elorrioko Udalak zehaztuko dituenak.

5.5.- Mantentze konduktibo zerbitzua emotea

Enpresa esleipendunak Elorrioko Udalaren ardurapekoa den mantentze konduktiboa egin beharko du eta lagundu beharko du araudi mantentzea, zuzentzailea eta prebentziozkoa. Bestalde, instalazioaren funtzionamenduaren egunean eguneko mantentzearen ezagutza izan beharko du, nahiz eta egindako zereginak Elorrioko Udalarenak izan.

Horrela, enpresa esleipendunak mantenimendu zereginetarako pertsona arduradun bat izango du, gutxienez, lanaldi osoan. Honen ordutegia Kirol eta Jarduera Fisiko Sailak zehaztuko du. Gainera, mantentze-zerbitzuaren erabilgarritasuna bermatu beharko da instalazioak zabalik dauden ordutegi osoan zehar, behar den kasurako. Zentzu honetan, enpresa esleipendunak zaintzaile bat izendatuko du, instalazioa zabalik dagoen ordutegian erraz aurkitzeko moduan egon beharko duena.

Orokorrean, mantentze-mota bakoitzarentzat jarraian azaltzen diren gaiak honako hauek izango dira:

5.5.1. Mantentze konduktiboa

- Mantentze konduktiboa. Enpresa esleipendunak kontratuaren xede diren espazio guztietako mantentze konduktiboa-egin beharko du, kirol anitzetarako pista, frontoia eta squash pistak barne. Enpresa esleipendunak, egunero, ekipamendua zabaldu eta itxi egin beharko du, hala nola kontrol operazio guztiak instalazioen zerbitzuak etendura

barik eta intzidentzia barik emotea lortzeko, kontsumoak apuntatu, errendimenduak eta funtzionamendu parametroak, egiaztapen, berifikazio eta doiketak, egindako operazio guztiak sortuz eta erregistratuz. Esleipendunak bere gain hartuko ditu, efizientzia energetikoa optimizatzeko Elorrioko Udalak instalazioen erabilerarako egingo dituen erregulazio-proposamenak.

Instalazioen funtzionamendu ona eta erosotasun gehiena nahiko aurrerapenarekin segurtatzeko instalazio eta ekipo tekniko guztiak martxan jartzeko arduraduna enpresa esleipenduna izango da, eta aldi berean efizientzia energetikoan eragina eta aurreztearekin lotutako elementuetan arreta berezia jarriko du.

Mantentze konduktibo honen barruan, bereziki, sartzen dira mantentze konduktiboa egiteko beharrezkoak diren tresna guztien funtzionamendu zuzena bermatzen duten mantentze-zereginak eta konponketak, bereziki igerilekuetako uraren kontrolerako diren fotometroak, igerilekuaren barru aldea garbitzeko robotak, Elorrioko Udalarenak direnak, eta beharrezkoak putzuak garbitzeko, hala nola instalazioa, funtzionamenduaren kontrola, eta behin garbiketa egin ondoren batzeko eta gordetzeko ardura.

Baita enpresa esleipendunaren betebeharrekoen artean dago igerilekuaren inguruko hondartzak garbitzea eta desinfektatzea esparru honetan indarrean dauden baldintza sanitarioak gaindituz.

Beharrezkoa den makineria guztiak CE zigilua eroan beharko du eta Europar Erkidegoko UNE arauak bete beharko ditu, segurtasuna eta kalitatea bermatzeko, makinetarako 1495/86, 590/89 eta 830/91 Segurtasunaren Europako Kontseiluaren Zuzentaraua jarraituz, eta ondorioz, indarrean sartuko diren hurrengoak.

Enpresa esleipendunak programatutako jarduerak egin ahal izateko material teknikoa eta kirolekoa jartzeko eta batzeko zeregin guztiak egin beharko ditu.

Esleipendunak baldintza-agiri honetan aurreikusitako lanaldian zehar sortzen diren intzidentzien ondorioz egin beharko diren esku-hartze guztietarako errekerimendu guztiak erantzun beharko ditu baita zerbitzuaren premietatik eratorritako beste zeregin guztiak, adibidez, materialak lekuz aldatzea edo muntai txikiak, baita Elorrioko Udalak emondako jarraibideak eta irizpideak.

Bestalde, enpresa esleipendunak Elorrioko Udaleko pertsonalari edo beste enpresa batzuetako beharginei lagunduko die prebentziozko, arauzko- eta eta mantentze konduktiboaren agirian agertzen diren esku-hartze ez-sistematiko guztietan. Eta kontratu honetan esplizituki sartuta geratzen dira jarduera nagusian eraginik ez sortzeko ohiko lan-ordutegitik kanpo egin behar diren arauzko mantentze operazio guztietan laguntzea.

Enpresa esleipendunak lagundu beharko du ekipamendua osatzen duten elementu ezberdinen, instalazioen eta makineriaren iraunkortasuna eta funtzionamendu ona segurtatzeko beharrezko prozesu guztien planifikazioa, kontrola eta ebaluazioa egiteko zereginetan.

Baita izango da esleipendunaren erantzukizuna erabiltzaileen, bisitarien eta pertsonalaren segurtasun-neurriak mantentzea, lehen sorospenak eta oinarrizko osasun asistentzia, barne.

Mantentzearekin lotuta, instalazioak bete egin beharko du, une oro, estatu mailan eta autonomia erkidegoan indarrean dagoen araudia honako hauei buruz ari garela: instalazio elektrikoak, termikoak, legionelosia, autokontrol plana eta araudi hauetara lotuta egon daitekeen beste edozein.

Amaitzeko, prozesuak arintzeko helburuarekin, enpresa esleipendunak zuzenketa txikiak egin beharko ditu, matxurak ahalik eta denbora txikienean konponduz. Hauen artean, egon daitezke luminarien aldaketa, iturgintzarekin lotutako lan txikiak, altzarien mantentze zereginak eta konponketak, beste batzuen artean.

5.5.2.- Elorrioko Udalaren ardurapean geratuko dira jarraian zehazten diren gainerako mantentze jarduerak:

- Araudi mantentzea. Elorrioko Udalaren erantzukizuna izango da araudi mantentzea kontratatzea eta betetzea aplikagarria den indarreango araudiaren arabera (estatu mailakoa, autonomikoa eta udal ordenantzak). Honek dakar instalazio guztiei derrigorrezko berrikuspenak eta inspekzioak egitea indarrean dagoen legediaren arabera, kontratatutako kontrol-entitateek ezarritako aldietan.

Enpresa esleipenduna behartuta dago akonpainatzera, informatzera, eta indarrean dauden araudietan oinarrituta egin behar den guztia berrikustera, mantentze hori modu egokian egiteko. Gainera, kontratuaren hasieran enpresa esleipendunak plan bat prestatu beharko du datekin eta behar diren oharrekin araudi mantentzearen egikaritze zuzena egiteko.

Zentzu honetan, instalazioaren uraren tratamenduarekin lotutako mantentze eta prebentzio-prozesu guztiak egin beharko ditu, indarrean dagoen edo etorkizuneko araudia kontuan hartuta ur-putzuen tratamenduari buruz eta AFS eta ACS tratamenduei buruz ari garela, arreta berezia jarriz legionelaren prebentzioa une bakoitzean arautzen diren dekretuen arabera.

- Prebentziozko mantentzea Hemen sartuko dira, kontratuaren xede diren instalazioetan, baldintza-hoberenetan mantentzeko egin behar diren operazio sistematiko guztiak, finkatutako aldietan egin behar diren gainbegiratze-kontrolak, erabileran etenik ez sortzeko, bere funtzioan edo funtzionamenduaren parametroetan edota emaitzetan gorabeherarik ez sortzeko, modu honetara bizitza erabilgarria luzatuz eta errendimendua diseinuko mailetan mantentzeko. Halaber, makinerian akatsak eta hutsak hasieran aurkitzeko ahaleginak egingo ditu, arazo eta matxura handiagoak saihesteko.

Zentzu honetan, beharrezkoa izango da, gutxienez, oinarrizko honako ekintza hauek garatzea:

- Ekipoak zuzen erabiltzea eta erabiltzen direla segurtatzea, egin behar diren kontrolak eginez eta kontserbazio, garbiketa eta beste oinarrizko arau batzuk betez.
- Aldika eraikuntza elementuak eta oinarrizko instalazioak ikuskatzea, elementuen zaharkitzea edo matxurak garaiz detektatzen direla segurtatzeko, matxura sortu aurretik zuzendu ahal izateko, eta modu honetara arriskutsuak izan daitezkeen egoerak saihestu.
- Segurtasunarekin eta detekzio, alarma eta suteak itzaltzeko ekipoekin lotutako instalazioen aldizkako funtzionamendu-probak egitea, larrialdi kasuan funtzionamendua bermatzeko.
- Aparailu kritikoen fabrikatzaileen aldikako auditoretzak aparailuen egoeraren gaineko informazioa emoteko, edo bitarteko arrunten bidez irisgarriak ez diren puntuena edo makineriarena.
- Igerilekuen tratamendu fisiko eta kimikoen prozesu guztiak egitea.
- Legionelosiaren prebentziorako beharrezkoak diren aktuazioak eta gainbegiraketa egitea.
- Mantentze-planean aurreikusitako mantentze txikiarekin lotutako zeregin guztiak.

- Mantentze zuzentzailea. Mantentze zuzentzailea Elorrioko Udalak edo kontratatutako enpresak egingo du. Honek, esku-hartze espezializatua egingo du edota matxurak konpondu, ekipoak ordeztu edo antzeko beste behar batzuk egin ondoren gainbegiraketa. Enpresa esleipendunak, matxura bat dagoela ohartzen denean ahalik eta lasterren jakinaraziko dio Udalak izendatutakoari arazoa ahalik eta lehenen konpontzeko, baita instalaziora sarrera ahalbidetu dio mantentze-zereginetarako enpresari, hala nola eskatutako informazioa.

Elorrio Kiroldegiko mantentze-zereginetarako pertsonalak gai izan beharko du konponketa txikiak egiteko. Elorrioko Udalak bere gain hartuko ditu mantentze zereginetarako pertsonalak konpondu ezingo dituen konponketa guztiak, edo matxura handiak.

Operazioen zuzendaritza, eta erantzukizun teknikoa. Elorrioko Udalak bere plantillako pertsona bat izendatuko du mantentze-zereginetarako eta instalazioen funtzionalitaterako. Eta hau solaskidea izango da ekipamenduaren koordinatzailearekin eta enpresa esleipendunaren mantentze lanetarako beharginarekin, jarraipen batzordeko kide izango dena.

Nahiz eta mantentze zereginak: araudikoak, prebentziokoak eta zuzentzaileak Elorrioko Udalaren erantzukizuna izan, enpresa esleipendunak Udalak hirugarrenekin kontratatutako mantentze zereginen jarraipena egin behar du, egin den beharra ondo egin dela bermatzeko helburuarekin.

Elizalde Igerilekuak

Zerbitzu hau ekainaren bigarren hamabostalditik irailaren lehenengo hamabostaldira eskainiko da 11.00ak eta 20.30ak bitartean. Edozein modutan, Elorrioko Udalak eskubidea gordeko du egutegia eta ordutegia zabaltzeko, murrizteko edo egokitzeko udako igerilekuen benetako premietara.

5.6.- Salbamendu eta sorospen zerbitzuak emotea.

Enpresa esleipendunak, Elizalde Igerilekuetako instalazioak zabalik daudenean salbamendu eta sorospen zerbitzuan hiru arduradun, gutxienez, egongo direla bermatuko du. Pertsona hauek uretako salbamenduko prestakuntza arautua eduki beharko dute, baita lehen sorospenetan, eta titulazioa indarrean beharko dute.

Instalazioko igerilekuetako esparruak espazio guztian dauden ur putzuak eta hondartzak hartzen ditu. Helburua instalazioaren erabilera-arauak errespetaraztea izango da, eta erabiltzaileek une oro lagunduta egon daitezela istripuren bat suertatuz gero edo itoz gero, esku-hartze bizkorra eta eragingarria lortzeko.

Zerbitzuaren barne egongo da Elizalde Igerilekuen instalazioetan sor daitekeen edozein istripu artatzea, eta larrialdietako lehen aktuazioak egitea. Istripu larriak daudenerako, proposamenean zehaztuko den intzidentzietarako plana jarraitu beharko da. Plan honek berehala esku-hartzeko protokolo bat izango du barne, eta ondorioz enpresa esleipenduna arduratuko da DEA desfibriladoreen mantentzen-zereginekin, baita oxigenoterapia ekipoenekin (O2 botila, oxigenoterapia maskara, autoaireztapena). Ekipamendu hau Elorrioko Udalarena da eta beharrezkoa da zerbitzua emon ahal izateko, funtzionamenduan egotea, eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari atxikitako Kanpo Desfibriladore Automatizatuen Euskal Erregistroan inskribatuta egotea. Halaber, aipatutako tresneria manipulatu behar duenak prestakuntza berezia gainditu duela segurtatuko da, indarrean dagoen legediaren arabera barriztatu beharko duena.

Enpresa esleipendunaren erantzukizuna da salbamendu eta sorozpidetza zerbitzuaren egikaritze egokia egiteko behar den materiala aldizka brrikustea, baita Kirol Sailari jakinaraztea materiala garaiz aldatzeko eta birjarri ahal izateko, hori izan ez dadin oztopo zerbitzua egikaritzean.

5.7.- Harrera-zerbitzuak emotea.

Elizalde Igerilekuetako harrera-, administrazio- eta bezeroarentzat arreta-zerbitzuaren gainean ardura duen pertsonalak instalazioa zabaltzeko proposatutako ordua baino 15 minutu lehenago zabaldu beharko du eta 15 minutu beranduago itxi. Gainera, behargin hauek, gutxienez, honako zeregin hauek bete beharko dituzte:

- Sarrerak eta abonamenduak saldu.

- Instalazioaren eta eskaintzen dituen zerbitzuak sustatu, bezeroaren arreta eta informazioa emon.
- Aforoaren, sarreren, motaren arabera saldutako sarreren, eta abarren jarraipena egin.
- Eskudirutan ordaintzeko makinaren kudeaketaren ardura hartu, instalazioa zabalik dagoen denbora guztian nahiko eskudiru egon dadila bermatzeko.
- Elizalde Igerilekuetako zaintza orokorra egin, bitarteko informatikoak barne.
- Harrerakoak diren beste eginkizun batzuk, koordinatzaileak edota Elorrioko Udalak zehaztuko dituenak.

5.8.- Mantentze konduktibo eta garbiketa zerbitzuak emotea.

Elizalde Igerilekuak zabaltzeko denboraldian zehar, baita denboraldiaren aurreko eta ondorengo asteetan mantentze konduktiboa eta instalazioaren garbiketa egingo duen pertsonala eduki beharko du, igerilekuak zabaltzeko aurreikusitako egunerako mantentze zereginak eta garbiketa egokia dela bermatzeko, baita denboraldian zehar.

Zehatzago esanda, Elizalde Igerilekuetako mantentze zereginetarako eta garbiketako pertsonala maiatzaren lehenengo astean hasiko da beharrean eta irailaren hirugarrenean amaituko du. Egutegi hau, urtero, Elorrioko Udalarekin adostuko da, aldaketak egiteko premiarik egonez gero, egin ahal izateko.

- Mantentze konduktiboa: Elizalde Igerilekuetako mantentze konduktiboaren zereginetarako pertsonalaren lanaldia aldakorra izango da, une bakoitzaren premiaren arabera. Jarraian, zeregin garrantzitsuenak zehazten dira:

- Kontrol operazio guztiak egin zerbitzuak etendura barik eta intzidentzia barik emotea lortzeko une oro, kontsumoak apuntatu, errendimenduak eta funtzionamendu parametroak, egiaztapen, berifikazio eta doiketak, egindako operazio guztiak sortuz eta erergistratuz.
- Instalazioen funtzionamendu ona eta erosotasun gehiena nahiko aurrerapenarekin segurtatzeko instalazio eta ekipo tekniko guztiak martxan jarri, eta aldi berean efizientzia energetikoan eragina eta aurreztearekin lotutako elementuetan arreta berezia jarri.
- Beharrezkoak diren tresna guztien funtzionamendu zuzena bermatu, eta bereziki, igerilekuetako uraren kontrolerako diren fotometroak, putzuak garbitzeko robotak, Elorrioko Udalarenak direnak, beharrezkoak eta egokiak putzuak garbitzeko, hala nola horien instalazioa, funtzionamenduaren kontrola, eta behin garbiketa egin ondoren, batu eta gorde.
- Erabiltzaileen, bisitarien eta pertsonalaren segurtasun-neurriak mantendu, lehen sorospenak eta oinarrizko osasun asistentzia, barne.

- Mantentze-zerbitzuari dagozkion beste batzuk, Elorrioko Udalak zehaztuko dituenak.

- Garbiketa zerbitzua: garbiketa zerbitzuaren pertsonalak lanaldi aldakorra izango du, une bakoitzaren premiaren arabera. Garbiketa zerbitzurako pertsonalak Elizalde Igerilekuetako garbiketa eta desinfekzioa egin beharko du baldintza-agiriaren proposamen teknikoak igerilekuetarako jasotzen duen garbiketa-planean zehaztutako zuzentarauak jarraituz, honako hauek hain zuzen ere:

- Espazioen zerrenda, eta garbitu eta desinfektatu behar diren elementuak.
- Prozedurak espazioen, eta garbitu eta desinfektatu behar diren elementuen arabera.
- Materialak eta produktuak. Instalazioan erabili behar diren produktu guztien eta garbiketa makineriaren kontrola eta antolamendu zehatza. Erabilitako produktuen fitxen jarraipena eta kontrola.
- Garbiketa egiteko maiztasunak.
- Mantentze konduktiboaren zereginen euskarri.
- Erabiltzaileentzako diren lekuetan egindako zeregin guztien erregistroa eta informazioa emotea 95/2022 EDak xedatzen duena jarraituz, eta dekretu honek gerora izan ditzaken aldaketei egokitzapena.
- Planaren koordinaziorako, kontrolerako eta jarraipenerako mekanismoak.
- Garbiketa zerbitzuari dagozkion beste zeregin batzuk koordinatzaileak edota Elorrioko Udalak zehaztuko dituenak.

6. KLAUSULA. Zerbitzuaren egutegia eta planifikazioa

Elorrio Kiroldegia urteko asteko egun guztietan egongo da zabalik, Euskadiko jaiegun ofizialetan eta bi tokiko jaiegunetan ezik. Egun horietan instalazioa itxita egongo da. Hala ere, Elorrioko Udalak instalazioa zabaltzeko eta ixteko ohiz kanpoko aldiak ezarri ahal izango ditu, arrazoia jaiegunetako kirol egutegiak, ezohiko mantentze zereginak edo justifikatzen beste arrazoi batzuk daudenean.

Beste alde batetik, Elorrio Kiroldegiak Elorrioko Udalak urterako onartutako ordutegiaren barruan eskainiko ditu, 3 Eranskinean agertzen den ordu bolumenarekin bat, eta honako hau izan daitekeena (orientagarria):

Astegunak:	07.00 - 22.00
Astegunak uztaila eta abuztua:	08.00 - 20.00
Zapatuak:	09.00 - 20.00
Domekak:	09.00-14.00

7. KLAUSULA. Zerbitzua handiagotzea, murriztea eta aldaketak

Administrazio Baldintza-Agiriaren 1.5 eranskinean zerbitzurako zehaztutako orduen kopurua orientagarria baino ez da, eta aurreikusi den ordu-kopuruaren gehiengoa jasotzen du. Elorrioko Udalak egungo arauak aurreikusten dituen baldintzekin bat zerbitzu hoberena egokitzeko edota emoteko beharrezkoak ikusten dituen aldaketak edota murrizketak egin ahal izango ditu.

Kontratua ere handiagotu ahal izango da zerbitzuen eskaerek horrela adierazten badute, administrazioko baldintza-agiriaren 1.5 eranskinean agertzen diren prezioak eta funtzioak oinarri hartuta, eta Jarraipen-Batzordeak horrela erabakitzen badu. Kontratua handiagotu edo murriztuko da zerbitzuaren eskaera handiagotzeko edo murrizteko eskaeren ondorioz. Horretarako kontuan hartuko dira Jarraipen Batzordeak zerbitzurako ezarritako kalitate-ratioak eta administrazioko baldintza-agiriaren 1.5 eranskinean kategoriaka zehaztu diren prezio unitarioak.

Handiagoketa hauek aldaketak izango dira, prestazioa behar moduan gauzatzen den bitartean kontratuan aurreikusitako unitateetatik benetan egikaritutako unitateen kopuruan baino gertatzen ez direnak, betiere, kontratuaren-prezioa baino % 20a baino gehiago ez denean, eta aldaketatxoa ez da kontratuaren izaera orokorraren aldaketatzat hartuko SPKLaren 204 artikuluak aurreikusten duena jarraiki. Beraz, berariaz ezartzen da posible dela erabiltzaileek egindako eskaerei erantzuteko ordu gehiago emotea edo edo aurreikusitakoak gutxitzea, hasierako aurreikuspenak aldatuz.

8. KLAUSULA. Zerbitzuen Jarraipen- eta ikuskaritza-Batzordea

Zerbitzuaren gaineko kontrola, jarraipena eta ikuskaketa Elorrioko Udalak egingo du, enpresa esleipendunari jakinarazio dion pertsonaren edo pertsonen bidez, proposatzen zaizkion jarraibide guztiak artatuko eta beteko dituenak.

Hala ere, Elorrioko Udalak, egoki deritzonean, zerbitzuaren jarraipena, kontrola eta garapena hobetzeko helburuarekin kudeaketa arruntari kanpoko jarraipena egitea erabaki ahal izango du.

Kontratazioaren baldintzen ikuskaketa, kontrola eta jarraipena egitea Elorrioko Udaleko zerbitzu teknikoei dagokie, eta hauek une oro ikuskatu ahal izango dituzte zerbitzuaren xede diren ondasunak eta instalazioak.

Pertsonal honek, bere funtzioak betetzean, fakultatiboki honako hauek egin ahal izango ditu:

a) Instalazio guztietara sartu.

b) Ikuskatutako jardueraren gaineko informazioa eskatu ahoz, edo idatziz.

c) Elorrioko Udalari behin betiko eta behin-behineko neurriak hartzea proposatu, beharrezkoak direla uste denean zerbitzuaren egoera anomaloa delako.

d) Kasua bada, Elorrioko Udalari proposatu zerbitzurako instrukzioak eta aginduak hartzea.

Ikuskaketa funtzio hauek egiten direnean, egindako egiaztapenen akta egingo da.

Klausula honetan adierazitakoak ez du enpresa esleipenduna salbuesten Elorrioko Udalari egitea aurreikusi dituen jardueren gaineko informazioa emotetik, honek onar ditzan. Horregatik, zerbitzuen jarraipena egiteko helburuarekin, Jarraipen Batzordea sortuko da, honako hauek osatuko dutenak eta gaitasun eta funtzio hauek izango dituenak:

a) Jarraipen Batzorde bat eratuko da baldintza-agiri hau betetzen dela zaintzeko eta Elorrio Kiroldegiaren eta Elizalde Igerilekuen kudeaketarekin lotutako gai guztiak aztertzeko, ebazteko eta proposamenak egiteko.

b) Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- Batzordeburua alkatea izango da, edo izendatzen duen zinegotzia.
- Kiroletarako izendatutako zinegotzia, edo izendatzen duen funtzionario edo pertsona.
- Ahotsarekin eta boto barik egongo dira idazkaria eta kontu-hartzailea eta batzordeburuak izendatzen dituen pertsonaleko beste batzuk. Batzordeko idazkaria izango da Udaleko idazkaria, edo honek izendatzen duen funtzionarioa.
- Enpresa esleipendunak izendatzen duen ordezkaria.
- Elorrio Kiroldegiko eta Elizalde Igerilekuetako koordinatzailea.

c) Enpresa esleipendunak, Jarraipen Batzordearen bitartez, Elorrio Kiroldegiaren eta Elizalde Igerilekuetako kirol eta ekonomia kudeaketaren gaineko informazioa emongo dio Udalari.

d) Jarraipen Batzordearen eskumenak honako hauek izango dira:

1. Bere erantzukizunpeko gaien gaineko informazioa emotea.

2. Tarifen gaineko informazioa emotea.

3. Zerbitzuaren kontrola eta jarraipena egitea, eta sor daitezkeen edozein motatako intzidentziak ezagutzea.

4. Zerbitzuaren funtzionamenduarekin lotuta proposamenak egitea edo eztabaidatzea, eta bereziki, estipulatutako adierazleen oinarrituta emondako zerbitzuaren kalitate-mailaren gainean.

5. Zerbitzuak handiagotzeko edota murrizteko komenigarritasunari buruz ebaztea.

6.- Jarraipen Batzordearen eskumena izango da Elorrio Kiroldegiko eta Elizalde Igerilekuetako koordinatzailearen izendapena eta kargu-uztea egitea onartzea edo ez.

e) Bileren aldizkotasuna: Jarraipen Batzordearen bilerak gutxienez izango dira:

1. Kudeaketako arruntak: hilero, helburu nagusiena kudeaketaren emaitza ekonomikoak aztertzea eta ebaluatzea izango direlako.

2. Eraikinaren eta instalazioen funtzionamenduko arruntak: bi urtean. Nahitaez Elorrio Kiroldegian eta Elizalde Igerilekuetan egingo diren bilera hauen helburua honako hau izango da: eraikinaren alde guztiak begiratzea, kontrolatzea eta funtzionamenduaren jarraipena egitea, eta mantentze eta garbiketarekin gai guztiak koordinatzea.

3. Ezohikoak: behar denean eta Elorrioko Udalak edo enpresa esleipendunak eskatzen duenean.

f) Aztertuko diren gaiak direla eta bileretara doazenak doazela, bozketak, bozketak egiten diren kasuan, Udalaren kalitate-botoarekin ebatziko dira, alkatea edo zinegotzia.

9. KLAUSULA. Hizkuntza irizpideak

